

AKTA

Udalaren Ohiko Osoko Bilkura

ORGANOA: Udalbatza
DEIALDIA: Lehenengoa
EGUNA: 2015-07-02 (08)
ORDUA: 19:00 – 19:45
LEKUA: Markina-Xemeingo Udaletxeko bilkura aretoa.

BERTARATUAK:

Alkatea: Juan Jose Txurruka Txurruka (EH BILDU)

Zinegotziak: Josune Baskaran Etxeberria (EH BILDU)
Aitor Odiaga Garate (EH BILDU)
Joseba Iraolagoitia Martinez (EH BILDU)
Isa Mandiola Zuazo (EH BILDU)
Andoni Malaxetxebarria Kaltzakorta (EAJ/PNV)
Luis Mari Malaxetxebarria Elordi (EAJ-PNV)
Ainara Gandiaga Longarte (EAJ-PNV)
Alex Aretxabaleta Egia (EAJ-PNV)
Sorkunde Maguregi Maguregi (EAJ-PNV)

Idazkari eta kontu-hartzailea: Iratxe Rementeria Otxandio

Etorri ezina arrazoitu du: Iratxe Lasa Arana (EH BILDU)

AZTERGAIK:

1. Kreditu aldaketak.
2. Zinegotzien galderak.

1.- **KREDITU ALDAKETAK**

3105 – 2015/35 KODEA

Udal idazkari eta kontu-hartzaileak aurrekontuaren 7. kreditu-aldaketaren proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkurak onartu dezan, eta jakinarazi du ekainaren 26an bildu zen informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ziola kreditu-aldaketa horri.

1.1.- **7. Kreditu-aldaketa** diruzaintzako geldikin likidotik 185.894,50 euro hartu eta honako gastuen partidak finantzatzeko erabiliko da:

GASTUA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA EUROTAN
163021200	Kaleak garbitzeko makina konpontzea	9000,00
323062302	Bideo-atezaina	7523,78
454021000	Auzo bideak konpontzea	28530,23
942042100	Amankomunazgoko partida gehitu	38857,46
150013100	Udako bi peoi	13900,80
150016001	Gizarte Segurantzza	4823,58
333021100	Frontoiko goiko gelako lanak	3500,00
230021100	Etxebizitza baten konponketa	13244,68
165062302	Energia iraunkortasunerako proiektua	19472,57
171062301	Brigadarako <i>desbrozadora</i>	976,81
337262301	Ortuetarako motoaitzurra	2086,04
342062302	Kiroldegirako eguzki plakak	17288,18
323020100	Hurtzaindegirako modulu berria alokatzea	8069,25
323022699	Hurtzaindegiko modulua muntatzea	5824,27
150022799	Arraindegiko iturria konpontzea	1796,85
920062502	Proiektorea eta pantaila	4000,00
150022799	Eserlekuak margotzea	4000,00
920016201	Langileen formakuntza	3000,00

Aldaketa hau onartzeko beharrezkoa da Osoko Bilkurara Udal idazkari eta kontu-hartzailearen txostena eramatea; bertan, Bizkaiko Toki-Erakundearen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko ekainaren 12ko 5/2013 Foru Arauko 6. artikularekin bat etorriz, aldaketa honek entitate honen finantza-iraunkortasuna ez duela konprometitzen adierazten duelarik.

Horrez gain, Udaltzari jakinarazi zaio Alkate-Dekretuz ondorengo kreditu aldaketa onartu dela:

1.2.- **8. Zenbakia duen aldaketa**, 2015eko aurrekontuari 44.995,02 euro gehitu zaizkio Erlatx bidea konpontzeko eta instalazio elektriko jasagarriak egiteko. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza bana eman die horiei lanei; hurrenez hurren, 15.786,16 euro eta 29.208,86 euro.

Udalbatzak azaldutakoa ikusita aho batez ondorengo onartzen da:

1) Udal idazkari eta kontu-hartzaileak Udalaren finantza iraunkortasunaren eraginpeko zazpigarren kreditu-aldaketari buruz egindako txostena aintzat hartzea eta kreditu-aldaketa horri hasierako onespina ematea.

2) Zortzigarren zenbakiko aldaketaren berri izan dutela.

3) Erabaki hau eta kontu-hartzailearen txostena Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunari bidaltzea, erakunde horrek egin behar duen txostenerako beharrezkoa duen bestelako dokumentazioa erantsita.

4) Zazpigarren kreditu-aldaketari dagokionez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialera iragarki bat bidali behar dela, onarpen honen berri ematen. Hamabost egun baliouduneko epea irekiko da espedientea kontsultatzeko eta beharrezko alegazioak aurkezteko. Epearen barruan alegaziorik aurkeztu ezean bigarren iragarki bat bidaliko da Aldizkarira. Bigarren horretan, aurrekontua kapituluka laburtuta bidaliko da eta azken hau argitaratutakoan aldaketa behin-betiko onartutzat emango da indarrean jarriko da, Udalaren Osoko Bilkurak gaur eta orain beren-beregi adierazi duena betez

2.- **ZINEGOTZIEN GALDERAK**

Ez da egon.

ETA BESTERIK EZ AZTERTZEKO, ALKATEAK AMAITUTZAT EMAN DU BATZARRA, 19:45EAN, ETA UDALEKO IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILE NAIZEN HONEK HAN ESAN ETA ERABAKITAKO GUZTIAREN FEDE EMAN DUT.

ALKATE-UDALBURUA,
Juan Jose Txurruka Txurruka

IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA,
Iratxe Rementeria Otxandio